



BULARREKO UMEENTZAKO PRESTAKINAK
JAKINARAZPENA NOLA BETE JAKITEKO JARRAIBIDEAK

Inprimaki hau **bularreko umeentzako prestakinen** jakinarazpenekin erlazionatutako guztirako erabili behar da, nazio-merkatuen lehen aldiz jartzen badira eta merkaturatze-arduradunak egoitza soziala EAEn badu.

Inprimaki honi erantsita, produktua nazio-mailan merkaturatzeko erabiliko den etiketa aurkeztu behar da nahitaez.

Agintari eskudunak eskatzen ez badu, borondatezkoa izango da beste dokumentazio bat ere aurkeztea, hala nola, fitxa teknikoa, osaeraren egiaztapena, produktua lehenago merkaturatu den herrialdeetako etiketak, beste estatu kide batzuetan produktuari buruz egindako jakinarazpena, beste estatu kide edo erkidegoetako agintariak produkturako emandako baimenak, etab.

Inprimakiaren lehenengo zatian, jakinarazpenaren arrazoiak adierazi beharko da: lehenengo merkaturatzea/arduradun-aldaketa/produktuaren konposizioaren aldaketak/merkataritza-izenaren aldaketa/beste aldaketa batzuk/merkaturatzeari uztea.

(1) LEHENENGO MERKATURATZEA EGIN DUEN ARDURADUNAREN DATUAK.- Egiten diren jakinarazpen guztietan datu guztiak bete behar dira.

(2) PRODUKTUAREN DATUAK.- Egiten diren jakinarazpen guztietan datu guztiak bete behar dira.

- **PRODUKTUAREN IZEN KOMERTZIALA.**- Produktua zer izenekin merkaturatuko den adierazi behar da.
- **AURKEZTE-MODUA ETA ONTZI-MOTA.**- Nola merkaturatuko den adierazi behar da (likidua, hautsa...), eta ontzi-mota eta dosifikazio-unitatea (adib.: 10 ml-ko anpoila).
- **SALMENTA IZENA.**- Produktuen nutrizio-helburua adieraziko da.

(3) EB-KO PRODUKTUA, BAINA ARDURADUNAK EGOITZA SOZIALA EAE-N DU.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jada merkaturatzen diren produktuak direnean beteko da. Ere guztiak beteko dira, produktua zein herrialdetan jakinarazi den zehaztuta.

Kasu horretan, produktuak aztertu ahal izan daitezten, estatu kideen arteko onarpen-arauak kontuak izanik, dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Agintari eskudunari egindako jakinarazpenak, jadanik egin diren herrialdeetakoak.
- Agintari eskudunaren baimena, halakorik baldin badago.
- Hala eta guztiz ere, estatu kidearen aurretiko merkaturatze-baimeneko dokumenturik ez badago, estatu kide hartan merkaturatu izana egiaztatzeko dokumentua aurkeztuko da (etiketa, faktura, albarana, etab.), non saltzailea eta eroslea agertzen diren.
- Dokumentu horien gaztelaniazko itzulpena. Itzulpen hori zinpeko itzulpena edo enpresaren beraren itzulpena izan daiteke, non itzulpenaren erantzukizuna bere gain hartzen baitu.

Dokumentaziori aurkezten ez bada, jakinarazpenaren azterketan ez dira kontuan izango estatu kideen arteko onarpen-arauak.

Produktuak beste autonomia erkidego batzuetan jakinarazpena eginda badu, etiketa baloratuta badu, merkaturatuta badago, eta abar, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da, baloratzeko azterketa egiterakoan hori kontuan izateko.

867/2008 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 23koa, (*) Bularreko haurrentzako prestakinei eta jarraipen-prestakinei buruzko arautegi tekniko sanitarioa onesten duena.

(4) PRODUKTUAREN ARDURADUNA ALDATZEA.- Atal honetan, aurreko arduradunaren identifikazio-datuak jarriko dira. Arduradun-aldaketaz gain, etiketan beste aldaketa batzuk badaude, hurrengo laukitxoetan jasoko dira, kasu bakoitzean eskatzen denaren arabera.

(5) ETIKETA-ALDAKETAK

- **PRODUKTUAREN IZEN KOMERTZIALA ALDATZEA:** Zein izenarekin zegoen erregistratuta eta eskatzen den izen berria jasoko dira. Arduradun-aldaketaz gain, etiketan beste aldaketa batzuk badaude, hurrengo laukitxoetan jasoko dira, kasu bakoitzean eskatzen denaren arabera.
- **KONPOSIZIO BERRIA:** kasu honetan, dagokion laukitxoan jartzeaz gain, etiketa berri bat erantsiko da. Produktu berritza hartuko da baloratzeko.
- **BESTE BATZUK:** adierazi zein diren aurreko puntuetan jaso ez diren aldaketak; hala nola, zapora-aldaketak, bialen tamainaren aldaketak, eta abar.

(6) PRODUKTUA MERKATURATZEARI UZTEA.- Ez dela gehiago merkaturatuko jakinarazi den produktuaren izena adierazi behar da.

(7) ETIKETAK.- Eremu honetan, produktua merkaturatzeko erabiliko den etiketaren ale bat erantsi behar da

Aurretiaz Europar Batasuneko beste estatu batzuetan merkaturatu diren produktuen kasuan, estatu hartan jakinarazteko erabili zen jatorrizko etiketa ere erantsiko da.

(8) JAKINARAZPENAK.- Jakinarazpenik egin behar izanez gero, arduradunak zer modutan jaso nahi dituen adierazi behar da.